

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **5 Oinezkoentzako pasabidea Armentiaganan**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Horren espazio gutxi duen kale batean oinezkoentzako pasabide berezia egiteak soberan gaindituko luke Hobetuz programako proiektu bakoitzerako ezarritako gehieneko aurrekontua.

---

### **8 Zubigarai konpontzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Silo eta ondoko eraikinak, Mendiolarako bidegurutzean daudenak (Bidegaraien) behera botatzeko eskatu da. Siloa ez da Udalarena, Eusko Jaurlaritzarena baizik. Lurzati batzuk pribatuak dira eta eremu horretan Udalaren materialak gordetzeko biltegiak daude, bertatik kendu ezin direnak

---

### **13 Salburuako kaleetan hartxintxarra eta hondarra kentzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Oinezkoentzako espazio batzuetan landareak eta lurra jarri dira zoru gisa. Ingurua eta espazio publikoak naturalizatzeko erabiltzen den baliabidea da eta Udalaren helburu eta planetara egokitzen da.

---

### **18 KULTUR ONDAREA**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Museoak Foru Aldundiaren eskumenekoak dira

---

### **19 Gasteiz Hiribideko 52.ean dagoen biribilgunea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Esku-hartzea proposatu den tokia Gasteiz Hiribidea berritzeko azken lanen parte izan zen eta beraz, zaila izan daiteke irizpidearen zuzenketa hori justifikatzea. Hala ere, aukera horren berri emango zaio udal zerbitzuari, kontuan har dezaten. Izan ere, zerbitzu horrek idatzi behar du berritze-lan horien 2. fasea

---

### **21 Pertsonen osasunerako eta aisialdirako espazio bat berreskuratzea.**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK "Duela denbora gutxi, Arana auzoko auzotarren eskaeraren ondorioz (Auzo Elkartearen bidez), auzoko aparkaleku beharrak berrikusi ziren eta Galizia kaleko eremuan aparkaleku hori handitzea erabaki zen. Proposamen honek duela 4 urte egindako aparkaleku eremuaren erabilera aldaketa azaltzen du, baina ez da bateragarria onartutako plangintzarekin eta beharrekin, beraz, ez da bideragarritzat jotzen."

---

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **22 Salburua, bisonte europarra kontserbatzeko eta berreskuratzeko gune nagusia**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Bisonte europarra espezie aloktonoa da, ez baita ageri Espainiako ingurune natural osoan desagertuta dauden espezieen zerrendan (195 zenbakidun BOE, 2018ko abuztuaren 13koa). Jarduketa ez da Salburuako Kontserbazio Bereziko Eremurako gidalerroetan eta kudeaketa-neurrietan ageri.

### **27 Beato-Huelos bidegorria**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Udala proposatutako azpiegituraren zati bat aztertzen eta planifikatzen ari da jada. Horrez gain, adierazitako tarte guztietan egiteak soberan gaindituko luke Hobetuz programak proiektu bakoitzerako ezarritako gehieneko aurrekontua. Hori dela eta, ez da proposamena bideragarritzat jo.

### **28 Argiztapen eta akustikaren kutsadura Gasteizen**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Ez da beharrezkoa hiriko argiztapenaren kutsadura murrizteari buruzko udal araudirik sortzea; izan ere, bada bete behar den arau orokor bat, argiteria instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko erregelamendua.

### **32 Repair kafea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Kontratu berri horrekin jarriko da martxan. Ez du Hobetuz beharrik.

### **36 Udal garraioa hobetzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Mugikortasun iraunkorra industrialdeetara zabaltzeko diagnostikoa egiteko, herritarren parte-hartzea kontuan hartzeko eta aukeren plangintza egiteko prozesuarekin bat dator proposamen hau

### **37 Gasteizen trena guztiz lurperatzea, Arkaiate eta Zabalgane barne hartuta.**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposamen hau ezin da gauzatu programa honen aurrekontuarekin

### **38 Hondakinen bilketa pneumatikoko postontzietarako hutsuneak kentzea.**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Ezezkoa, lehiarik ezagatik. Proposamena interesgarria da garbiketaren ikuspegitik, baina postontzi horiek fatxada partikularretan daude, eta Gasteizko Udalak ez du horretarako ekitzeko eskubiderik.

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **39 Legutianoko Atea kaleko espaloiak eraberritzea, Burgos kaletik Nafarroako Errege-erreginen kalera bitartean.**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Proposamena Udalaren helburuekin eta plangintzarekin bat badator ere, aurrekontuak gainditu egingo luke Hobetuz programan ezarritako muga.

---

### **41 Frantzia kalea oinezkoentzat jartzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Frantzia kalea hiriko trafikorako ezinbestekoa den puntua da eta ibilgailu pribatuek zein garraio publikoak erabiltzen dute. Ibilgailuetarako eta oinezkoentzako espazioaren banaketa berrantolatzea interesgarria izango litzatekeen arren, hura oinezkoentzat jartzea ez da bideragarria MIEPPren garapen fase honetan. Aurrekoaz gain, jarduketa honen aurrekontuak soberan gaindituko luke Hobetuz programak proiektu bakoitzerako ezarritako gehieneko aurrekontua.

---

### **45 Atseginagoa**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Oinezkoentzako espazioa eraberritzeko proposamena Udalaren plangintzan ageri da jada eta Herrandarren kalea eta ingurua eraberritzeko proiektuan sartu da.

---

### **46 Norabide bietan bi errei jartzea San Ignacioko esmaltazioen biribilgunetik Mendizabalaraino**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Egungo egoeran, proposamena ez da komenigarria. Hiriko errepide-sarearen edukiera bidegurutzeen edukieraren araberakoa da eta ez hainbeste errepideen sekzioen araberakoa. Gainera, frogatuta dago edukiera handituz gero, trafiko induzitu handiagoa sortzen dela

---

### **48 Udal txiki parka**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Ez da beharrezkotzat jotzen doako txiki park bat egitea. Ekimen pribatuen aurka joango litzateke eta batez ere, ez dator bat jada gizarte-etxeetan ludoteka zerbitzuaren bitartez eskaintzen den aisialdi hezitzailearen alde egindako apustuarekin

---

### **49 Futbol-zelaia Mariturrin**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Futbol-zelai berria eraikitzeko, soberan gainditzen da 300.000 euroko aurrekontua

---

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **50 Gasteizko letrak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK      Olarizu mendiaren tontorra Mendiola kontzejuarena da.

---

### **52 Done Jakue hiribidea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK      Proposamena MIEPPrekiko eta Udalaren helburuekiko koherentea den arren, hura gauzatzeko aurrekontuak soberan gaindituko luke Hobetuz programak proiektu bakoitzerako ezarritako gehieneko aurrekontu-zuzkidura.

---

### **53 Paperontzia edo zaborrontzia jartzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK      Ez da udalaren eskumena. Industrialde batez ari gara, non udalaren bilketa zerbitzuak ez duen eskumenik. Mc Donalds-i dagokio hondakin horiek biltzeko zakarontzi bat jartzea. Eskatuko zaie.

---

### **55 Komunikazioa**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK      Vitoria-Gasteizko garraio publikoaren sarea ortogonal da. Super-etxadien ereduari oinarritzen da eta errepide nagusietatik igarotzen da. Garraio-sarearen egungo konfigurazioa herritar gehienek 350 metro lineal baino gutxiagoko distantzian geraleku bat izateko eta bertatik lekualdaketak zuzenean edo beste autobus edo tranbia linea batzuetara behin aldatuta (joan nahi den tokiaren arabera) egin ahal izateko pentsatuta dago. Egun Sansomendi eta Zabalzana ingurutik pasatzen dira TUVISAren 5. eta 7. lineak

---

### **57 Neguan joan daitezkeen lekuak gastatzeko behar barik , publikoak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK      Oso proposamen orokorra, ez baitu ezer zehatzik proposatzen.

---

### 58 Garraio publikoaren konexioak erakusten dituen app-a

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Vitoria-Gasteizko Udalak GeoVitoria-Gasteiz aplikazioa dauka. Geolokalizatorako aplikazioa da eta plano batean edo satellite bidezko irudi batean gure udalerriko toki, jarduera eta puntu interesgarriak lokalizatzea ahalbidetzen du. GeoVitoria-Gasteiz web aplikazio progresiboa da (pwa), hau da, gailu mugikor batean erabiltzen denean, app batek bezala funtzionatzen du baina web nabigatzailean. Horrela, app-ra sarbide zuzena izateko ikono bat sor dezakegu gure mugikorrean, gogokoenak marka ditzakegu, geolokalizazioa erabili dezakegu... Dena den, app batek baino azkarrago funtzionatzen du, datu gutxiago kontsumitzen ditu, ez du espaziorik okupatzen eta ez du bertsioak eguneratzeko eskatzen sistema eragilearen arabera. GeoVitoria-Gasteizek puntu interesgarriei, mapan informazioarekin adierazi diren tokiei, jardueri eta ekitaldiei, kaleen kokapenari, TAO eremuen banaketari, udal baliabide edo zerbitzuen kokapenari (iturriak, komun publikoak, gizarte-etxeak, bidegorriak, bizikletentzako aparkalekuak...), autobus lineen ibilbideari, hiritik egin daitezkeen ibilbideei eta abarri buruzko informazioa eskaintzen du. Horrez gain, hirian barrena ibilbideak zehazteko eta kalkulatzeko (oinez, bizikletaz edo garraio publikoan) edo zu zauden tokitik gertu zer dagoen ikustea ahalbidetzen du. Autobusak gu gauden geralekura noiz iritsiko diren erakusten du aplikazioak eta gustukoak ditugun kokapenen zerrenda gordetzea ahalbidetzen digu. Era berean, Vitoria-Gasteizko Udalak VGBus aplikazio progresiboa ere badauka. TUVISAren autobusen geraleku guztien inguruko datuak online eta denbora errealean kontsultatzea ahalbidetzen du. Esate baterako, gu gauden tokitik hurbil TUVISAren zein geraleku dauden erakusten digu, izenaren edo linearen arabera geralekuak bilatzea ahalbidetzen digu eta gustukoak ditugun geraleku gisa gordetzea ere ahalbidetzen digu VGBusek. Gainera, geraleku bat aukeratzea eta bertatik pasako diren ibilgailuen inguruko informazioa kontsultatzea ahalbidetzen du, ibilgailu horiek geraleku horretara heltzeko beharko duten denbora barne

### 59 Trinkotzea eta zaintzea

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposamea ez da batere zehatza, ez baita ezer zehatzik proposatzen

### 60 Bidegorria Santa Teresa Bidean

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Santa Teresa Bidea kalean oinezkoek lehentasuna dute. Ibilgailuek bertatik zirkula dezakete baina oinezkoek lehentasuna dutela kontuan hartuta. Kalearen zabalera eta egungo antolaera direla-eta, ez da gomendagarria ibilgailuentzako errei berezia sortzea.

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **62 Patinodromo estalia**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Bi patinodromo daude udalerrian: Ariznabarra polikiroldegiaren atzean dagoena eta Lakua 03ko futbol-zelaiak dauden instalazio barruan dagoena. Gainera, Lakuako merkataritza gunean eta Ariznabarra polikiroldegian estalpean patina daiteke (patinodromo bateko neurriak izan gabe). Momentu honetan Vitoria-Gasteizko Udalak ez dauka patinodromo baterako instalazio estalirik eta berri bat eraikitzeko, 300.000 euro baino gehiago behar dira.

### **63 Ariznabarra kaleko aparkalekuak berrantolatzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Kale horretan ezin da neurria ezarri, zabalera gatik

### **65 Hondartza-boleian aritzeko pista estalia**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Hondartza-boleia berez kanpoaldean egiten den kirola da. Udalerrian hondartza-boleian aritzeko bi zelai daude, bata Mendizorrotzako kirol esparruan eta bestea Gamarrako parkean. Klima ez da arazoa kirol horretan aritzeko, aire zabalean egin ohi baita

### **67 Valladolid 3 atariaren pareko zuhaitzen inausketa drastikoa**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

010 eta Herritarren Postontziaren bidez kudeatuta

### **68 Hiriko altzari guztiak sektorializatzea, eremuka.**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Hiri osoko altzariak (eremu berezietakoak salbu) erduen eta koloreen homogeneousotasun irizpideak kontuan hartuta kokatzen eta mantentzen dira

### **69 Berdeguneak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Zalantzarik gabe, Vitoria-Gasteizen konpromiso estrategikoa da berdeguneak sortzea, mantentzea eta egokitzea. Proposamen hau ez da berria, gaur egun indarrean dauden arlo horretako udal planei erreparatuz gero

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **70 Zadorra ibaiaren ertzetik - Eraztun Berdetik ibilbideak egitea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Zadorrako parkean oinezkoentzako bideen sarea dago jada eta herritarrek asko erabiltzen dute. Ibaia zikin egotearen arazoak zerikusia du Krispiñako HUAren kolektoreko hustubidearen gainezkabideekin eta kontrolatzen ez den hondakin uren isuri kopurua murriztea litzateke konponbidea. Proposatu diren beste jarduketa batzuk, kioskoak jartzea edo ontziak alokatzea adibidez, ez dira bateragarriak Zadorra ibaiaren KBE kudeatzeko gidalerroekin. Proposamenaren asmoa da Zadorra ibaiaren ertzari erabilera publikoa handitzea baina natur balio esanguratsua duen eta Natura 2000 Sarean sartuta dagoen eremu batean ez da komenigarria, bertan biodibertsitatea zaintzea izan behar baita lehentasuna.

### **71 Parkearen proiektua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Herrandarren kalea osorik berritzeko lanek parkeari eragingo diote, Udala momentu horretan eraberritze-lanen proiektua garatzen ari baita

### **77 Arriaga parkeko haurrentzako eremua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Jolas-eremua egiteko edo modernizatzeko proposamenak, Piraten Galeoiaren parkearen antzeko egiturarekin, soberan gainditzen du Hobetuz programako proiektu bakoitzari esleitutako gehienezko aurrekontu

### **78 Manuel Iradier eta Florida oinezkoentzat jartzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Florida eta Manuel Iradier kaleak oinezkoentzako jartzeko, beste bide batzuk ere egokitu behar dira, ibilgailuak desbideratu ahal izateko. Momentu honetan ez da bideragarritzat jotzen

### **79 Manuel Iradier kalea oinezkoentzat jartzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Kale hau eraberritu beharra dago baina ez du Hobetuz programaren deialdirako aurrekontu-irizpidea betetzen.

### **80 Vitoria-Gasteizko Manuel Iradier kalea eraberritzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Kale hau eraberritu beharra dago baina ez du Hobetuz programaren deialdirako aurrekontu-irizpidea betetzen.

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **81 Herrandarren kaleko “Campos negros” suspertzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposamena bideragarria ez dela iritzi da, etorkizunean Herrandarren kalea eta ingurua eraberritzeko proiektuak kirol eremu horri eragingo diolako eta beraz, adierazitako espazioa eraldatuko delako.

---

### **82 Antso Jakitunaren kalean zebrabidea egitea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

“Bizitegi-kalea” da eta S-20 seinalea darama, hau da, oinezkoak lehentasuna du kale osoan zehar, Lovaina Plazaraino. Zebrabide bat jarritz gero, oinezkoek lehentasuna toki horretan baino ez dutela interpreta liteke. Hala ere, arazoa ulertzen dugu eta saiatuko gara irtenbidea bilatzen.

---

### **83 Txakurtegia**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Hobekuntza hau abz eraberritzeko proiektuan ageri da jada

---

### **84 Denbora mugaturako aparkalekua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Erosoagoa da saltoki jakin bateko bezeroentzat, bertaraino motordun ibilgailu batean hurbiltzen direnean

---

### **88 Los grandes olvidados**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Abz eraberritzeko proiektu bat dago jada, proposamen hori barne hartzen duena

---

### **89 Madril kaleko atalondoak hobetzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Espazio publikotik toki pribatuetara sartzeko irisgarritasun arazoak konpontzea jabetza pribatu horren baitan egin beharreko zerbait da, jabeen kontura. Ez da Udalaren eskumenekoa.

---



## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **91 Done Jakue Hiribidea, Bake kalearen eta Herrandarren kalearen artean**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposatutako jarduketa gauzatuz gero, aldaketa handiak egin beharko lirateke inguruko trafikoaren eta zirkulazioaren eskeman, ibilgailu pribatuek, garraio publikoak eta larrialdietako ibilgailuek asko erabiltzen duten bidea delako. Horretarako, inguruko kale batzuk eraberritu beharko lirateke, jarduketa ezingo litzatekeelako modu isolatuan gauzatu. Horregatik, proposamena MIEPPrekiko koherentea bada ere, hura gauzatzearen kostuak Hobetuz programako proiektu bakoitzerako aurrekontua gaindituko luke.

### **93 Lakuako parkean akuario teknologikoa egitea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposamena ez da bideragarria, bi arrazoi direla-eta: alde batetik, aparkaleku ugari kendu beharko lirateke eta oso zaila litzateke aparkaleku horiek beste nonbait jartzea; bestetik, akuarioa egiteko aurrekontuak Hobetuz programaren proiektu bakoitzerako ezarritako gehieneko diru kopurua gainditzen du.

### **95 Jacinto Benavente kaleko obrak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposamena udal mugikortasun planen aurka doa, duela gutxi garraio publikoarentzako beren-beregi sortutako erriak ezabatzen dituelako

### **96 Beato90 saskiak hobetzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Aldatu dira

### **97 Agirrelandako zeharkako ardatza eraberritzea eta naturalizatzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Planteatutako erreforma ez da bideragarria ikuspegi ekonomikotik (soberan gainditzen du Hobetuz programako proiektuetarako ezarritako gehieneko aurrekontua) eta gainera, ez du tokirik udal plangintzaren aspektu batzuetan. Bizikletaren Plan Zuzentzailean ez da ageri bidegorri bat sortzeko aukera eta IMD esanguratsuko bide baten edukiera murriztuko litzateke. Hutsik dauden lurzatiak espazio berdeak sortzeko erabiltzea ere bateraezina da HAPOn haien inguruan adierazitakoarekin.

### **98 Hegoaldeko saihesbidea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposatutako jarduketa ez da Mugikortasun Planera egokitzen eta ez da bateragarria indarrean dagoen HAPOrekin. Gainera, jarduketaren aurrekontua 300.000 eurotik gorakoa litzateke

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **101 Lur ibardun bati erabilgarritasuna ematea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposatutako lurzatia HAPOn berdegune publiko gisa kalifikatuta dago, eta zuhaitzez finkatutako berdegune bat da. Inguruan haurrentzako parkeak daude, txikienek erabil ditzaketenak.

---

### **102 Hiriko baratzeak teilatu-lauetan**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposamena ez da interes orokorrekoa, erabilera pribatuko lurzatiarako baita. Horrenbestez, ez da bideragarritzat jo. Diruz laguntzeko ereduak Vitoria-Gasteiz Hobetuz programatik kanpo baloratu beharko litzateke

---

### **103 Askotariko proposamen anitzak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Batere zehaztu gabeko proposamena da eta beraz, ezin da balorazio xehatua egin. Vitoria-Gasteiz Hobetuz programaren araudian jasotakoaren arabera, pertsona edo erakunde bakoitzeko proposamen bakarra aurkez daiteke eta kasu honetan ez da baldintza hori betetzen. Aurrekontu osoak soberan gaindituko luke proposamen bakoitzerako gehienezko diru kopurua

---

### **105 Bide-beharra Gasteizen. Inguruko bide azkarrak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Bestelako balorazioetan sartu gabe, proposamen mota horren kostuak gainditu egiten du ezarritako muga (300.000 €).

---

### **106 Magnoliak Dato kalean**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Dato kalea gure hiriko kale esanguratsua da eta bertako zuhaitzak ere hala dira, neurri handi batean. Gainera, ikuspegi teknikitik oso zaila litzateke zuhaitz horiek beste toki batera eramatea. Hori dela eta, proposamena bideragarria ez dela iritzi da

---

### **107 San Martingo “Las Conchas” atzean dagoen etxadira ibilgailuz joateko irisgarritasuna hobetzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Aldaketa hori egin da jada

---

110

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

---

**114 Adineko pertsonentzako jantokia auzoan**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proiektua bideragarria ez dela iritzi da, lokalean inbertitu beharko litzatekeelako eta urteko aurrekontu-zuzkidura beharko litzatekeelako. Gainera, 2022. urtetik aurrera auzoan antzeko proiektu bat egiteko konpromiso politikoa dago

---

**115 Erabiltzen ez den lurzatia atontzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposatutako lurzatia bizitegi-erabilerako azpilurzatiez eta HAPOn berdegune gisa kalifikatutako beste batzuek osatuta dago. Horrenbestez, lurzati horiek kirolerako espazio bihurtzea bateraezina da udal plangintzarekin.

---

**116 Nazio Batuen Hiribideko lurzati hutsak urbanizatzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposamena batere zehatza ez denez eta hura egin duen pertsonarekin harremanetan jartzeko daturik eman ez denez, proposamena bideragarria ez dela iritzi da

---

**117 Zaramagan fatxadak konpontzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Eraikinen fatxadak eraberritzea eta konpontzea ez da udal eskumen-esparruaren baitan sartzen eta bizilagunak (jabeen erkidegoen bitartez) arduratu behar dira horretaz

---

**121 Landatxo eta ingurak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposatutako espazio publikoen sarrerak eta perimetroak mugatzeko arrazoiak askotarikoak dira (beheko solairuan etxebizitzak egotea, desnibelak babestea, ondare-babesa eta babes historikoa...), eta, beraz, horiek kentzea ez da bideragarritzat jotzen.

---

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **126 Adineko pertsonentzako zentro soziokulturala**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Proposamena bideragarria ez dela iritzi da, epe laburrera ez baita BIZAN sareko zentro eta langile kopurua handitzea aurreikusten. BIZAN sarerako ekipamendu berria litzateke baina momentu honetan ez da BIZAN zentroen sarea handitzea aurreikusten, orain gutxi martxan jarri baita San Martingo BIZAN. Salburua auzoak ere ez dauka oso zaharkituta dagoen biztanleria eta aurrekontua 300.000 eurotik gorakoa da

### **131 Topaketak nire lagun leialarekin**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Proiektua ez da bideragarria, auzoan adinekoen kolektibo berari zuzendutako hainbat ekimen martxan daudelako, eta jada proiekturen batean inplikaturik ez dauden boluntarioak auzoan erakartzeko zailtasuna baloratzen delako. Kolektibo horretan nahi gabeko bakardadeak baditu nahikoa laguntza, eta proiektu honek zailtasunak dakartza animaliak kontrolatzeko kolektibo ahul honetan.

### **134 Hautsontzia duten paperontziak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Egungo hiri-ekipamendua nahikoa dela eta irtenbidea sentsibilizazio- eta heziketa-kanpainak egitea litzatekeela uste dugu

### **136 Eskolara aseguruak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Proiektuaren balorazioa ez da bideragarria, ez baitator bat indarrean dauden planekin eta ez baitago planifikatuta. Proposamena mugagabea da, hezkuntza komunitatearekin eta espazio fisiko jakin batekin lotura falta zaio. Abiapuntuko egoeraren diagnostikoa ez dator gutiz bat Trafiko Zerbitzuarekin, ezta Hezkuntza Zerbitzuarekin ere. Ere horretako udal programak eta ekintzak ikasleen mugikortasun autonomoa sustatzera bideratu dira, hezkuntza komunitatearen eta inguruko ingurunearen laguntzarekin.

### **137 Zabalganako pasabidea Armentiarekin modu seguruan lotzea bidegorri edo oinezkoen pasabide baten bidez**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Proposamena ezetsi egin da, errepideetan esku hartzea proposatzen duelako, foru-aldundien eskumenekoa baita.

### **138 AUTOBUSENTZAKO baino ez den gezia**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Trafiko zerbitzuarekin kontsultatu ostean, jarduketaren berri eman dela eta gauzatuko dela esan dute

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **140 Eskoletarako autobus zerbitzu bateratua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du sare publikoko eskoletako garraioa. Bestalde, hezkuntza zentro pribatu eta itunduetako garraioa zentroek beraiek kudeatzen dute. Udalak ez du eskumenik arlo horretan

### **143 Tokiko merkataritza suspertzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposamen hau ez da lan-ildo berria Ekonomia-sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailean. Izan ere, 2020an Covid-19ak pandemia ekarri zuenean, sail horrek kontsumoa dinamizatzeko tresna hori erabili zuen beste erakunde batzuekin batera. Vitoria-Gasteizko Udalak jada erabili du bonoen estrategia eta hala egiten jarraituko du egoera ekonomikoari buruzko datuek okerrera egiten badute, kontsumoaren beherakadak gehien kaltetutako sektoreen parte diren enpresa txikietan kontsumoa sustatzeko xedez. Ostalaritzaren eta txikizkako merkataritzaren sektoreetan estrategia honen onuradun izan daitezkeen enpresa asko daudenez, tresna hau beste erakundeekin koordinatuta baino ezin da erabili (Eusko Jaurlaritza eta/edo Arabako Foru Aldundia), indarrak eta aurrekontuak batzeko eta horrela, tresna hau parte hartzen duten enpresentzat benetan eraginkorra izateko. Nolanahi ere, egoeraren arabera tresna bat da, kontsumoa jaisten denean bultzatzeko, eta beraz, merkataritzaren eta ostalaritzaren egoerak hala eskatzen duenean jarriko da martxan.

### **148 Oto hiribidea Gasteizko sarrera ahaztua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposamenak udal helburuak eta plangintza koherenteak dira. Hala ere, erreforma integrala denez, hori egitearen kostuak nabarmen gaindituko luke Hobetuz programak proiektu bakoitzari esleitzen dion gehieneko aurrekontua.

### **154 Sari-robota**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

"Proposamena oso interesgarria da ingurumenaren ikuspegitik, gordailutze-itxultze eta itxultze-sistema horiek une honetan ECOEMBESeekin hitzartutakoaz bestelako bilketa-eredu bat behar izan arren. Gaur egun, ez da bideragarria, enpresa horrekin hitzarmen bat indarrean dagoelako, etorkizunera begira kontutan hartuko da.

### **156 Abetxuko garbitzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Udal eskumenak dira eta gauzatuko dira. Ez da proiektu bat. Hiria garbitzeko zerbitzua kontratatuta dago eta estolda-zuloen garbiketa maiz egiten den zerbait da

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **157 Eskailera mekanikoak abetxukon eta igogailua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Gaur egun El Ancora Pasabidea eta Intxaurrondo kalea (Kooperatiba Plazaraino) lotzen dituzten eskailera kentzeak eta haien ordez eskailera mekanikoak jartzeak gainditu egingo luke Hobetuz programako proiektu bakoitzerako gehieneko aurrekontua.

---

### **158 Doako tranbia zerbitzua Abetxukon**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Vitoria-Gasteizen tranbiaren azpiegitura eraikitzea, mantentzea eta kudeatzea ez da Udalaren eskumenekoa. ETS (Euskal Trenbide Sarea) da erakunde eskuduna eta Eusko Jaurlaritzaren menpe dago.

---

### **160 Informazio taula komunitarioa**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Hirian egiten diren jarduera guztiak zabaltzea ez da udalaren eskumena. Dena den, gizarte-etxeetan iragarki-panelak daude, iristen den informazio guztia erakusteko.

---

### **161 Eskatu edukiontzi irisgarriagoak ABETXUKOn**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Egin egingo da. Ez da sartzen hobetuz bezala

---

### **162 Maiatzaren Lehenaren Plazako harriak kentzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Gaur egun egurrezko modulu loredunak dituen lorategi bat dago bertan eta modulu horien inguruan, zoru gisa, harri solteak daude. Harri horiek beharrezkoak dira aipatutako loreontziak behar bezala mantentzeko eta haien inguruan espazio naturala sortzeko. Oinezkoen gunean harriak agertzen dira noizean behin eta garbiketa- eta mantentze-lanen bitartez konpontzen ari dira hori.

---

### **164 Txirrindulariak eta oinezkoak bereiztea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Ez da uste bidegorriak modu masiboan sortzea justifikatuta dagoenik, oinez lekualdatzen diren pertsonentzako espazio publikoa mugatuko lukeelako. Oinezkoek segurtasunerako, udal mugikortasun ordenantzak bizikletak oinezkoentzako espazioetatik igarotzea ahalbidetzen du ezohiko kasuetan eta segurtasuna bermatzeko muga batzuk ezartzen ditu. Arriagako parkearen kasuan, berdegune honek bizikletentzako azpiegitura dauka haren perimetroan, bizikletak oinezkoentzako espazioetatik igaro ez daitezen

---

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **165 Pinu arriskutsua kentzea beldararen inbasioagatik (prozesionaria pozoitsua)**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Herritarren postontzira berbidaltzen da.

---

### **169 Eserlekuak eta komunak Forondako atean**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Proposatutako eremua berrantolatzeko jarduketa bat aurreikusi da eta egungo fasean bateraezina da proposamen honekin.

---

### **170 Gaueko garraio publikoa hobetzea.**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK TUVISAK uztailaren 1ean berreskuratu zuen Gautxori zerbitzua. Orduz geroztik, gaueko autobusak 3:00retara arte egon dira martxan. Hala, Eusko Jaurlaritzak COVID-19aren pandemiari aurre egiteko dekretutako azken araudi-aldaketara egokitu da zerbitzua. Birusa agertu aurretik zeuden eta Udalaren webgunean kontsulta daitezkeen gaueko bost lineei eragiten die neurriak. Momentu honetan, Gautxori zerbitzuak ohiko geralekuak eta ibilbideak ditu baina ohiko ordutegia aldatu zaio. Eskaeraren arabera Gautxoria martxan da eta beraz, egunez egiten dituen geralekuetan jaisteko eska daiteke, baita normalean geldialdia egiten ez duen puntuetan jaisten uzteko ere, puntu horrek segurtasun-irizpide batzuk betetzen baditu. Ildo horretatik, emakumeak eta 18 urtetik beherakoak geldialdia egiten ez den puntu batean jaitsi ahalko dira. Horretarako, gelditzeko eskatu beharko diote gidariari, aurreko geralekuan abisatuta. Ostean, autobusaren aurrealdera joan beharko dira eta bertako irteeratik jaitsi beharko dira

---

### **173 Segurtasuna**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Oso orokorra da eta hainbat esparrutan proposatzen ditu esku-hartzeak

---

### **178 Iturritxuberria eta Adurtzako parke berria**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Proposatutako jarduketa ez da Mugikortasun Planera egokitzen eta ez da bateragarria indarrean dagoen HAPOrekin. Gainera, aurrekontua 300.000 eurotik gorakoa litzateke

---

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **179 Erabilera anitzeko espazioa egokitzea, auzoko jaiak ospatzeko eta beste jarduera soziokultural batzuk egiteko**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Ez da bideragarria proposatutako lurzatiak egokitzea. Mahatma Gandhi kaleko ekipamendu komunitariorako lurzatian beste udal proiektu batzuk egitea aurreikusi da jada. Bestalde, Oion kaleko lurzatia bizitegi gisa erabiltzeko lurzati gisa sailkatuta dago HAPOn

---

### **180 Tranbiaren trazatua Zabalganara, aukerak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Vitoria-Gasteizko tranbiaren azpiegiturari buruzko aukerak eta proiektuak aztertzea ez da Udalaren eskumenekoa. ETS (Euskal Trenbide Sarea) da erakunde eskuduna eta Eusko Jaurlaritzaren menpe dago

---

### **183 Kulturarteko jarduerak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Bizikidetza eta Aniztasuna zerbitzuak topaketa berrezagutza eta komunikaziorako tresna gisa lantzen du. Zehazki, Elkarrekin Bizitzen Ikasi programan zehazten da. Proposamen hau programa horren ekintzen artean sar daiteke.

---

### **184 Osorik lurperatzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Ezinezkoa da programa honekin egitea

---

### **185 Bizikleta elektrikoaren alokairua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Horrelako aukeren kostu handiena ez da hasieran egin beharreko inbertsioa, horrekin hirian zehar estazioak jar litezkeelako, estaldura nahikoa eskaintzeko moduan (proposamenean planteatu bezala). Kostu handiena martxan jarri osteko mantentze-lanarena da. Hori dela eta, ez da gomendagarria neurri hau aintzat hartzea, ondorengo ekitaldietan gastu arrunt handia eskatuko lukeelako eta hasierako inbertsioa gaitzuko lukeelako. Proiektu honetan babesle batek parte hartzea litzateke aukera bat.

---

### **191 Abetxukun katuentzako esparru bat sortzeko proiektua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA PROPOSAMENA EZIN DA GAUZATU, BAI PROIEKTUAREN KOKAPEN-ARAZOENGATIK, BAI NUKLEO ZOOLOGIKOAREKIN PAREKATU DAITEKEEN ERAIKUNTZA-ARAZOENGATIK, BAI KOSTU EKONOMIKOAGATIK.

---



## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **193 Ostalaritzarako seinaleak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Ez dator bat udal-planekin. 2 eta 5 izar bitarteko hotel-establezimenduak eta apartamentu turistikoak baino ez dira seinaleztatzen. Seinaleztatzeko erabiltzen diren zutoinak direkzionalak dira. Zutoinek lama kopuru mugatua dute, bestela segurtasunak bermatzen duen pisua eta altuera gainditzen dute. Seinaleztatzeko aukera beste establezimendu mota batzuetara zabaltzea konplexua da, bide publikoan zuzeneko eragina baitu. Horri buruzko edozein jarduerak udal-erregulazioa beharko luke, zer seinaleztatu daitekeen eta nola egin behar den zehazteko.

### **195 Arrakala digitalari ez, aurre egin diezaiogun.**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Ez da Udalaren eskumenekoa. Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena daukagu eta elkarlanean ari gara. Jaurlaritzak berriazko programa bat dauka KZguneetan, irakastea, laguntza ematea eta pertsona honek proposatutako jarduerak egitea xede duena

### **197 Eraztun Berdean fruta-arbolak landatzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposamenak ez dakar ezer berririk, Eraztun Berdean fruta-arbola ugari landatu direlako jada: Basaldean, Zadorra ibaiaren eskuineko ertzean (Abetxuko auzoaren ondoan), Nebera Gainan. Larragorri parkean fruta-arbolak landatzeko proposamena ez da bideragarria momentuz, parke hori egitea ideia bat baino ez delako

### **201 Aparkaleku express bat eskatzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Ezin dugu irizpide orokor gisa finkatu diru publikoarekin negozio jakin baterako aparkalekuak egitea

### **203 Ibilgailuen mantentze-lanetarako eremu bat sortzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Jarduera ekonomiko hori ez dago Hondakinen Kudeaketak ematen dituen eskumen eta/edo zerbitzuen artean. Udalak horrelako instalazio baten titularra izatea erabakiko balu, instalazio hori jarduera sailkatu gisa legeztatu beharko litzateke. Hondakinak kudeatuz gero, gerta litezkeen hondakin-fluxuetako bat baino ezingo litzateke kudeatu.

### **206 Clara Campoamor eta Victoria Kent kaleetako lurzatia erabiltzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

37. industrialdeko 707. lurzatia zuzkidura-alojamendu gisa ageri da HAPOn eta beraz, kirolerako erabiltzeko edo baratzeak egiteko aukerak ez lirateke bateragarriak kalifikazio horrekin.

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **208 Bidegorri zahar eta arriskutsu bat kentzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Gaur egun bidegorri zaharrak espaloi gisa funtzionatzen du eta oinezkoak bertatik pasatzea ahalbidetzen du, autoa aparkatu ostean bidea gurutzatzeko toki bateraino joateko. Ez dago benetako arriskurik, ez baita bidegorria erabiltzen. Iradoki den aparkalekua, bestalde, arriskutsua izango litzateke: egoera delikatuan utziko luke autotik jaisten den pertsona eta gainera, ez dira argi zehazten aparkalekuaren mugak

### **211 Herrandarren kaleko AGORESPACE**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposamena bideragarria ez dela iritzi da, etorkizunean Herrandarren kalea eta ingurua eraberritzeko proiektuak kirol eremu horri eragingo diolako eta aipatutako proiektuaren bitartez aipatu den espazioa eraldatuko delako.

### **214 Lopidanako iturria berreskuratzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Ez da oso bideragarria lehengo ur-hoditeria berreskuratzea, autobiak eragiten baitio.

### **216 Arkilloen itxiera**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Hirigune historikoan, 21. Zabalguneak dituen eskumenenn ikuspegitik, birgaitzera mugatzen direnak, proposamenak ez dakar ekarpenik. Gure ustez, proposamena gizalegezko portaera-arazo bat konpontzera bideratuta dago, lehen mailako elementu arkitektonikoa azpimarratuz: Los Arquillos. Gure ustez, konponbidea zaintzan, hezkuntzan eta hiriko ondarearekiko sentsibilizazioan oinarritu beharko litzateke.

### **217 Pasabide bat Alejandro Mendizabal Ingeniariaren kalearen parean**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Trenbidearen gainean oinezkoentzako pasabide berria egiteak gainditu egingo luke Hobetuz programako proiektu bakoitzerako gordetako gehieneko aurrekontua.

### **218 Otazuko albergea biziberritzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposamena ez da bideragarritzat jotzen, ez delako udalaren eskumena. Aterpetxea irekitzea eta kudeatzea Arabako Foru Aldundiaren eskumena da

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **219 Antzerkiko tailer integrala**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Gure ustez, badago antzeko helburuak dituen programazio bat; hala ere, proiektu honen proposamenak aztertuko dira, hura hobetzeko asmoz.

---

### **226 Mendizorrotzako aire zabaleko igerileku olinpikorako estalkia**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Mendizorrotzako kirol esparruaren barruan 50 metroko igerileku bat dago gaur egun, norbanakoen, taldeen eta kirol klubuen beharrezkoak asetzen dituena. Ez da beharrezkoa kanpoko igerilekua estaltzea, aipatu dugun igerilekuarekin eta gizarte-etxeetan eta polikiroldegietan dauden gainerako igerileku estaliekin eskaerari erantzuten zaiolako. "Instalazio- eta mantentze-gastuak oso handiak lirateke, honako hauek barne hartuko lituzketelako: 1. Estalkia erosi eta jartzea. 2. Instalazioa egokitzea, igerileku estaliko urak baldintza tekniko eta osasun baldintza guztiak bete ditzan. Egokitze-lan hori egiteko, obrak egin behar dira. Izan ere, gaur egun Mendizorrotza kanpoko igerilekua eta bere zirkuitu guztiak kanpoaldeko igerileku baten zerbitzua eskaintzeko diseinatuta daude, eta ez estaliak izateko. 3. Klimatizazio- ekipamenduak jarri eta mantentzea, bertako tenperatura kudeatzeko. 4. Estalkia eta bere ekipamendu osagarri guztiak jartzea eta uda garaian kentzea. 5. Uda garaian berriro ere kanpoko igerileku bihurtzea

---

### **227 Bizikletak igarotzea ahalbidetzen duten espaloiak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Bizikletak igarotzea ahalbidetzen duten espaloiak

---

### **229 Larrein pasabidea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Trenbidearen gainean oinezkoentzako pasabide berria egiteak gainditu egingo luke Hobetuz programako proiektu bakoitzerako gordetako gehieneko aurrekontua.

---

### **234 LoRaWAN sarerako konexio-zerbitzua**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Udalean jada baloratzen ari dira Hobetuzen proposamenaren pareko sare bat jartzeko aukera, udal eraikinetan antenak jarrita. Printzipioz, udal zerbitzuentzat baino ez litzateke izango. Analisia hasierako fasean dago eta aukera desberdinak baloratzen ari dira teknologia aldetik, instalazioen titulartasunaren aldetik, zerbitzuaren kudeaketa aldetik, etab. Zerbitzua handitzea bideragarria litzateke ikuspegi teknikotik, jada finkatuta dagoen irrati-frekuentziako udal sare bat erabiltzen bada. Horrela, herritarrek ere erabili ahalko lukete, proposamenean deskribatutako ezaugarrien arabera. Hori dela eta, gaur egun proba pilotu gisa instalatzeko proposamen hau ezetsi behar badugu ere, pareko irtenbide bat analisi fasean dagoelako, kontuan izango dugu azken diseinurako.

---

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **240 Unibertsitateko eta Egibideko aparkalekuetarako sarrera Nieves Cano kaletik**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Trafikoa: D. Mtz Aragoikoa bidegurutzeko sarbidea bideragarria da. Nieves Canotik Fcorako sarbidea. Tomas y Valiente ez da komenigarria, tranbiaren eraginagatik.

Espazio publikoa: Unibertsitateraino tranbia ezartzearen ondorioz, Justo Vélez de Elorriaga eta Nieves Cano kaleen arteko ibilgailuen trafikorako konexioa kendu egin zen eta, ondorioz, oinezkoentzako eta elkargunerako espazio berri bat sortu da. Aldi berean, Nieves Cano iparraldeko espaloian oinezkoentzako ibilbide jarraitu bat sortuz Izarduy komandantearen kaletik Juan Ibañez kaleraino. Proposamen hau bateraezina da alde aurretik gauzatutako jarduerarekin eta espazio publikoa oinezkoentzako erabileretarako berreskuratzeko planekin; beraz, Espazio Publikoaren eta Natura Ingurunearen Zerbitzuak uste du ez dela bideragarria.

### **246 Plaza Berria estaltzea, Zeledonon aterkiarekin**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Plaza Berria espazio historiko bakana da eta zati batean estalita dago jada. Espazio hori oso-osorik estaltzea ez dator bat egungo udal plangintzarekin. Gainera, proposamen hau gauzatzeko kostuak soberan gaindituko luke Hobetuz programak proiektu bakoitzerako gordetako gehieneko aurrekontua.

### **250 Zaldiaran plaza eta inguruak hobetzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Espazio publikoaren kasuan, proposamena egin duenak segurtasunagatik kezkatuta dagoela dio, bizikletak eta patineteak espaloietatik igarotzen direlako, baita lotu gabe doazen txakurrak ere. Hala ere, Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuak ezin du hori baloratu. Fatxadak eta aparkalekuetarako sarbidea konpontzeko proposatu da baina hori ez da Udalaren eskumenekoa, jabeen erkidegoena baizik

### **256 BIZIGUNE**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK Proposatu den moduluaren dimentsioak handiak izango lirateke bertan jarri nahi diren elementuak eta zerbitzuak kontuan hartuta eta beraz, ezingo litzateke espazio publiko jendetsu batean jarri, eta hain zuzen ere horrelako espazio batean egongo litzateke beharizan handiena.

### 258 TUVISA eta itsuak

#### JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK

#### 1. Cambio de la voz de los avisos de parada en los autobuses.

Comunicarle que TUVISA se encuentra actualmente inmersa en un cambio en el sistema de ayuda a la explotación de su sistema que incluye la grabación de nuevas locuciones que se emitirán próximamente en toda la flota.

?2. Que los autobuses paren en las paradas siempre que haya alguien esperando aun-que no se les llame.

El artículo 12 del Reglamento para la Prestación del Servicio de Transporte Urbano Colectivo de Viajeros de la Ciudad de Vitoria-Gasteiz establece que:

“Serán de carácter Discrecional, aquellas paradas en que el vehículo tan sólo se estacionará cuando alguna persona lo haya solicitado, pulsando el Timbre, para bajarse del vehículo, o cuando el personal Conductor-Perceptor observe que las personas situadas en los puntos de parada solicitan subir al vehículo, bien de forma generalizada alzando la mano por encima de la cabeza, o mediante gesto que demuestre su intención de subirse al autobús si de personas con dificultades físicas o psíquicas se tratara, así como, cualquier otro modo tecnológico que la em-presa implemente.”

?3. Aplicación móvil accesible para consulta de rutas, recorridos, horarios, pago de bille-tes...

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, dispone actualmente de GeoVitoria-Gasteiz, una aplicación de geolocalización que permite localizar sobre un plano o una imagen satélite los lugares, actividades y puntos de interés de nuestro municipio. GeoVitoria-Gasteiz es una aplicación web progresiva (pwa), lo que supone que, utilizada desde un dispositivo móvil, tiene el comportamiento de una app pero funciona sobre el navegador web.

De esta forma, puede crearse un icono de acceso directo en nuestro móvil, marcarse favoritos, utilizar la geolocalización... pero funciona más rápido que una app, consume menos datos, no ocupa espacio y no requiere ni de actualizaciones ni de diferentes versiones según sistema operativo.

GeoVitoria-Gasteiz nos ofrece información sobre puntos de interés, lugares que han sido ubicados en el mapa con información; sobre actos y eventos; sobre la ubicación de las calles; la distribución de las zonas OTA; la ubicación de recursos o servicios municipales (fuentes, baños públicos, centros cívicos, vías ciclistas, aparcamientos para bicicletas...); sobre el recorrido de las líneas de autobús; rutas por la ciudad, etcétera.

Además, permite establecer y calcular itinerarios por la ciudad (a pie, en bicicleta o en transporte público) o ver qué hay cerca de tu ubicación. La aplicación nos muestra el tiempo de llegada de los autobuses a la parada en la que estamos ubicados y permite guardar nuestra propia lista de ubicaciones favoritas.



## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

Así mismo, el Ayto de Vitoria-Gasteiz, cuenta también con la app progresiva VGBus, que permite consultar online los datos en tiempo real de todas las paradas de autobuses de TUVISA. VGBus permite saber, por ejemplo, qué paradas de TUVISA hay cerca de nuestra ubicación, buscar paradas por nombre o línea o, incluso, guardarlas como favoritas. Además, permite seleccionar una parada y consultar la información de los próximos vehículos que llegarán a la misma (con el tiempo que tardarán en llegar) y a qué línea corresponden (se puede consulta el mapa de la línea completa). A través de VGBus, además, se pueden consultar los horarios en tiempo real del tranvía.

Por último, trasladar que en [www.vitoria-gasteiz.org/TUVISA](http://www.vitoria-gasteiz.org/TUVISA) se encuentra disponible toda la información correspondiente a los autobuses urbanos de la ciudad, y que dicha Web ofrece la posibilidad de ser escuchada.

---

### **259 Gasteiz Hiribidearen bigarren tartea eraberritzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Proposatutako eraberritze-lana udal plan estrategikoekin bateragarria den arren, oso kostu ekonomiko handia izango luke eta beraz, "Vitoria-Gasteiz Hobetuz" programarekin bateraezina litzateke

---

### **263 Hegorik gabeko sorgailuak, ez du hegaztirik hiltzen**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Palarik gabeko haize-sorgailua da, eta gaur egun garatzen ari da, Horizon 2020 programa europarraren ikerketa- eta berrikuntza-proiektu baten finantzaketari esker. Ez dago industrializazio-fasean

---

### **265 Slow Running Prado parkean**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA

Prado parkea hiriko parke berezi eta enblematikoa da. Herritarrek atseden hartzeko eta jendearekin egoteko erabiltzen dute. Beraz, bertan kirol eremu berri bat sortzea desegokia litzateke.

---

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOAK**

### **269 Hegoalde Gizarte Etxearen atzealdean frontoi txiki bat egitea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Kirol arloarekin koordinatu da erantzuna: Ez da ezkutuko beharrizan bati erantzuten dion kontua, izan ere: -Frontoiak Maurice Ravel lorategiko laminadun urmaelaren eta ur-jauziaren zati handi bat hartuko luke. -Parke hau ondo bereizitako bi eremutan banatuta dago. Ere mu horietako bat kirol jardueretako diseinatuta dago (kantxak, bolatokia eta petanka) eta bestea hobeto dator atsedean hartzeko eta erlaxatzeko (lorategia, eserlekuak eta aipatutako urmaela). -Aipatutako frontoia eraikitze lanek asko kaltetuko lukete urmaela, ur-laminaren zati handi bat desagertuko litzatekeelako eta beraz, parkean atsedean hartzeko eremua murriztuko litzateke. -Bertatik oso hurbil ikasle-egoitza dago eta zarata deserosoa izan liteke (noizbait kexatu izan dira toki horretan egiten den udaberri festako zarategatik, eta hori urtean behin egiten dela kontuan hartuta). -Pilota asko uretara eroriko lirateke eta haiek batzea arriskutsua izateaz gain, eragozpenak eragingo lituzke. -Bere garaian Adurtzako frontoian egindako jarduketari esker, jada pilotan ibiltzeko aukera gehiago daude auzoan bertan. -Litekeena da (?) ur-jauzia eta urmaela dauden tokian dagoen eskultura multzoak egile-eskubideak izatea

### **272 Boleia Abetxukotik Gamarraraino doan parke berrian**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Ezin da proposamena gauzatu, planteatutako tokian uholdeak egon daitezkeelako eta beraz, uraldi bakoitzaren ostean hondarrezko pista berrezarri beharko litzatekeelako

### **273 Katuak eta katutxoak zuzenean kolonietatik adoptatzea,**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposamena existitzen da jada eta hiriko katu koloniak kudeatzeko "gaden" elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bidez egiten da

### **275 Madril-Irun trenbidearen gainean oinezkoentzako pasabidea egitea, Santiago Hiribidean, Arkaia inguruan**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Trenbidearen gainean oinezkoentzako pasabide berria egiteak gaintu egingo luke Hobetuz programako proiektu bakoitzerako gordetako gehieneko aurrekontua.

### **276 Adineko pertsonen ahots positiboa**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proposatzaileek bertan behera utzi dute

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **277 Zaindu ditzagun gure erleak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Proposamena bertan behera utzi dute proposatzaileek

---

### **281 Manuel Iradier oinezkoentzako bilakatzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Manuel Iradier kalea oinezkoentzat jartzeko, beste bide batzuk egokitu behar dira, inguruko ibilgailuen zirkulazioaren eskariei erantzun ahal izteko. PMSEP-aren garapen fase honetan, ez da bideragarritzat jotzen.

---

### **286 Eskultura-jarduketa inklusiboak Vitoria-Gasteizen**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Ezin zaizkio sei eskultura modu izendunean esleitu pertsona bati. Deialdiren bat egin beharko litzateke. Pertsona jakin batek egiteko proposamena da

---

### **287 “Zuhaitza naiz, ez hautsontzia” kanpaina**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Egungo hiri ekipamendua nahikoa dela eta irtenbidea sentsibilizazio- eta heziketa-kanpainak egitea litzatekeela uste dugu

---

### **290 Errege-erregina Katolikoek kaleko 22. zenbakian zamalanetarako eremua oinezkoentzat jartzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Errege-Erregina Katolikoek kaleko puntu zehatz batean (22. zenbakian) zamalanetarako eremua oinezkoentzat jartzea inguruko negozioen interes partikular eta komertziala litzateke. Proposamen honek ez du eragin handirik interes orokorrean. Gainera, zamalanetarako toki gutxiago utziko luke eta beraz, arazo berria sortuko litzateke.

---

### **291 Magdalena kaleko bidegorria**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Tranbiaren trazatuaren gaineko esku-hartzeak ez dira Udalaren eskumenekoak

---

### **292 Bizikleten mugikortasuna txertatzea ZABALGANAKO supersagarren esku-hartzeetan**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Etorkezunean ZABALGANAKO tranbia ezartzeak auzoko bide nagusien zati bat eraberritzea ekarriko du, eta ez da bateragarria proposatutako bidegorriak aldeztatik egitearekin. Horrez gain, proposatutako jardueren balorazio ekonomikoa 300.000 €-tik gorakoa izango litzateke.

---



## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **295 BASH aniztasun funtzionala duten hazteentzako mugimendu eta sormen espazioak**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Ezin da proposamena bideragarritzat jo, ekimenaren bultzatzaile den elkarteak edo enpresak berak egin beharreko jarduera izenduna proposatu delako eta hori ez delako Vitoria-Gasteiz Hobetuz programaren xedea

---

### **298 Mendizorrotza kanpoko igerilekua estaltzea**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Mendizorrotzako kirol esparruaren barruan 50 metroko igerileku bat dago gaur egun, norbanakoen, taldeen eta kirol klubek beharrezkoak asetzen dituenak. Ez da beharrezkoa kanpoko igerilekua estaltzea, aipatu dugun igerilekuarekin eta gizarte-etxeetan eta polikiroldegietan dauden gainerako igerileku estaliek eskarari erantzuten zaiolako. "Instalazio- eta mantentze-gastuak oso handiak lirateke, honako hauek barne hartuko lituzketelako: 1. Estalkia erosi eta jartzea. 2. Instalazioa egokitzea, igerileku estaliko urak baldintza tekniko eta osasun baldintza guztiak bete ditzan. Egokitze-lan hori egiteko, obrak egin behar dira. Izan ere, gaur egun Mendizorrotza kanpoko igerilekua eta bere zirkuitu guztiak kanpoaldeko igerileku baten zerbitzua eskaintzeko diseinatuta daude, eta ez estaliak izateko. 3. Klimatizazio- ekipamenduak jarri eta mantentzea, bertako tenperatura kudeatzeko. 4. Estalkia eta bere ekipamendu osagarri guztiak jartzea eta uda garaian kentzea. 5. Uda garaian berriro ere kanpoko igerileku bihurtzea

---

### **300 Gasteiz jasangarri eta tolerantaren alde**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Oso proposamen orokorra da, ekintzak lehenetsi gabe, eta, beraz, ezin da proiektuaren balorazio ekonomikorik egin. Alderdi batzuk ez dira udal-eskumenekoak, beste batzuk udal-planak lantzen ari dira eta beste batzuk aurrekontua baino nabarmen handiagoak dira.

---

### **301 Berrikuntza Politikoko Laborategia**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Hainbat helburu planteatzen dira proposamen honetan, eta dagoeneko lantzen ari dira Herritarren Partaidetzarako Udal Planaren bidez: Behatokia, herritarren partaidetzarako organoak, partaidetza-prozesuak...

---

### **304 EKI ALDEAK - Etorkizuna lantzen**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Ez du zentzurik ekoalde bat sortzeak bizitegi-erabilera onartzen ez den eremu batean.

Proposamena ez dator bat Vitoria-Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategiarekin.

Ez dakigu ekimen hau eta proposatutako zerbitzuak ematea ekonomikoki bideragarria izango litzatekeen. Aurrekontu parte-hartzaileen bidezko finantzaketak ez luke bermatuko proiektuaren jarraipena

---

## **BIDERAGARRIAK EZ DIREN PROPOSAMENEN ZERRENDA ETA JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA**

### **305 AHTren ordezeko aukerak aztertzea, lurperatzen ez bada**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Vitoria-Gasteizen AHTren obrei buruzko bideragarritasun azterlana, aurreproiektuak eta proiektuak egitea ez da Udalaren eskumenekoa, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren menpe dagoen ADIF erakundearen eskumenekoa baizik (Administrador de Infraestructuras Ferroviarias)

---

### **308 Guztiontzako xake-jokoa**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Beti Jai Frontoietan eta Arabako Xake Federazioarekin koordinatuta ikastaroak eskaintzen dira eta lehiaketak egiten dira, beren-beregi xakean aritzeko den espazio batean. Gizarte-etxeetatik adierazitakoaren arabera, Gizarte Politika Sailarekin koordinatutako ekintzak daude, gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden adin txikikoak artatzeko eta haien beharrezanean erantzuteko. Ez dugu uste proposamen hau bideragarria denik, udal zerbitzuen artean koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko erabili ohi diren bideetatik gauza daitekeelako

---

### **309 Etengabeko urratsak, Gasteizko euskararen mapa. "Gasteizko euskararen mapa" beka-deialdia**

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOA Urte honen bukaeran eta datorren urtearen hasieran Euskara Zerbitzuak antolatuta jardunaldiak egongo dira, gai hau neurri batean jorratzen dutenak. Egia da ez direla bekak, baina gaia landu egingo da. Beraz, beka-deialdirik eginez gero, komeniko litzateke beste urte batean egitea. Era berean, Kultur Zerbitzuak antolatutako kultur ikastaroetan gai hau jorratu izan da.

---

### 316 Erronka Tahaddi

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Proiektua bat dator Udalaren Gazte Planaren helburuarekin: Erronka: Gazteak 5.1 jatorri desberdineko pertsona gazteak gizarteratzea lortzea. Hiriko gazteek askotan egiten duten eskaerari erantzuten dio: gazteen sozializatorako, topaketarako eta sustapenerako espazioak egitea. Hala ere, Gazteria Saitetik uste dugu horrelako espazio batek gazte taldearen aniztasunari erantzun behar diola, oro har gazte guztien eta bereziki gazte jakin batzuen beharraz erantzuten saiatu behar dela, haien egoeraren eta/edo beharraz araberak. Ez duguna ikusten zera da: beren-beregi gazte migratzaileen talde jakin batentzat horrelako ekipamendu bat martxan jartzea. Udalaren gazteria politikaren aurkakoa litzateke, politika horren helburua gazteen artean gizarteratzea eta parekidetasuna bultzatzea baita. Hala ere, horrelako ekipamendu bat martxan jartzearen aldekoak gara eta urteak daramatzagu saiatzen. Gazteriaren heterogeneotasuna kontuan hartzen duen ekipamendu bat nahi dugu, gizarteratzea zeharkako elementu gisa duten proiektuak eskaini ahal izateko. Pertsona talde zehatz horri zuzendutako proiektuan aipatzen diren aisiarako eta astialdirako jardueren eskaintzari dagokionez, Gazteria Zerbitzuaren lan-ildoetako bat da eta bertan gazte taldearen heterogeneotasuna kontuan hartzen saiatzen gara, gazte migratzaileak ere barne hartuta. Horrenbestez, proposamenak ez lioke ezer berririk gehituko Udaletik egiten ari garen lanari. Martxan jartzen ari garen lan-ildoetako bat da parekoen arteko sareak sortzeko proiektu bat, kalteberatasun egoeran dauden gazteak (aipatutako taldea, tartean) modu aktiboan eta parte hartuz gizarteratzeko, gazte guztientzat erakargarriak izan daitezkeen zaletasunak oinarri hartuta. Momentuz ez daukagu erreferentziazko espazio fisikorik baina lan egiten jarraitzeko asmoa dugu, aipatutako lokal hori lortzeko, hiriko gazteentzat. Gazte guzti-guztiei zuzenduta ez dagoen espazio bat, kasu jakin batzuetan atzeritik etorritako gazteenganako diskriminazio positiboa egon behar dela ulertzen dugun arren, segregazio-espazio bat izan daiteke, bizikidetzarako eta gizarteratzeko espazio bat izan ordez. Ideia teknikoki bideragarria den arren eta printzipioz Udalaren Gazte Planaren helburuekin lerrotatuta dagoen arren, garatuta dagoen moduari erreparatuz gero, onartu ezin dugula uste dugu. Izan ere, Udalak helburu horiek betetzeko duen lan-ildoarekiko kontraesankorra litzateke. Pertsona talde horrekin oso modu zehatzean lan egin behar denez, Gizarte Politika Sailak ideia hori ere baloratu behar duela uste dugu, Gazteria Zerbitzuaren esku-hartzeak unibertsalak direlako, egoera eta programa jakin batzuetan pertsona talde batzuekin diskriminazio positiboa ere egiten duen arren.

### 322 Eskultura-jarduketa inklusiboak Gasteizen

JUSTIFIKAZIO  
TEKNIKOAK

Ezin zaizkio sei eskultura modu izendunean esleitu pertsona bati. Deialdiren bat egin beharko litzateke. Pertsona jakin batek egiteko proposamena da.